



# euskal herritik begira...



## AHAZTU AL GERA?

Eguneroko bizitzak eskeintzen digu berri eta albisterik aski lagun arteko berriketa solas aldiatarako. Egunkariak ere jakiniko berriekin baterik dauzkate: agintarien hitzaldiak, gertaera garraizak, kanpoan gertatu ohi diren ez behar, istillu eta batez ere pakarik eza, eta kirolak... Eguneroko bizitza uste gabeen horrela igaro zaigu.

Bitartean, egiazko problemetaz ez gera oroitze ere egiten. Egun batean, Biafrak tarte handia betetzen zuten aldiakarietan, eta gaur egun ez gera ba denik gogoratzen. Quebec, imperialismoaren menpean arkitzen den Quebec ere gogoan genduen, F.L.O. taldeak askatasun bururari ekinaz Cross eta Laporte ministroa atzitu zutenean, denek, hango eta hemengo berri emaleek herrialde hartako haizi galgarriaren berri ematen ahalegindu zitzaizkigun, guztiok beste bitartean menpean arkitzen zen herriaz oroitzen ginenean, berri zegozkien eskubideak bereganatzea opa genion...

Lehenago, Hungria, Txegoslovakia, indarkeriaren menpean lur jotzen ikusi genituen. Biafra, Palestinen herrialdea gero... Viet Nam, lehen, orain eta gero konpondu ezinezko haizia... Irlandaren bareatu ezina...

Bai erraz ahaztu ohi geran... Bestalde, erakunde eta instituzioek ez dute zenbait arazo behar den sakonetik aztertu eta erabiltzen hari eta beren interesak, handikien ondasunak, harriskuan ipintzen ez dituen bitartean, ONUren historia, adibidez, tristea da. Bertan estatuak biltzen dira, sarritan herrialdeak menperatuak dauzkaten estatuak, eta bertan munduko pakea lortzea nahikoa dute. Hatzoko okerra zuzentzeko prest daude guztiok, baina bakoitzak bere opillari su ematen dio kiskaldu arte.

Bai goikoak, bai behekoak, gauzez danak erraz ahaztuzten gera. Baina arazoa eta problema, zoritxarrez, berdin diraute. Lengilleriak asko sufritu du, gaur egun zenbait eskubidetzat jabetu ahal izateko. Zortzi ordutako lana, guztiokiko botoa emateko eskubidea haurrek lantegitiki eskolatar ahal izateko, sozialismoaren daraman barrika ez ahal dugu oroiarritzat gorde behar? Herriaren alde ixuri izan den odolak ez ahal du landare berriak indar berriro? Zenbaiten jarduna, zigorkada... alferriakoa ote? Vietnamdarrek ezezkota eman diote, eta azkenerraino irixteko prest daude, aurrez bururatu direnetaz oroitzen dira, herri bizitzari historian zehar eutsi diote eta egungo momentuan ez diote amor emango. Noiz behinka funtsik gabeko gauzak alde batera utzita, ba dukegu gogoan zertaz oroit, gure kaskoan zertaz pentsa, lana nun egin...

Bakoitzak, ahal duen neurrian Quebec, Biafra, Palestina, Hegoafrika, t.a. gogoan har bitza, eta anaitasunez gziok osakuntza, askatasuna, eta danon arteko anaitasuna maiz dezagun. Pertsona ez da, gizarte barruan izan ezik, behar bezela osatuko. Herriak ere berdin, ezin gaitzeko bakarka, sakabanatuak, elkartu gabe egon...

Ea bada, denon artean, batasunez, egiazko herri arteko anaitasun giroa sortzen dugun, herriak (menperatuak eta atzeratuak arkitzen diren herriak batipat) ONUrik gabeko elkarteak sortzen dituen.

Orain arte bezela jokatzu zail litzake.

Mikel Ugalde

## HIGUINA...

(3'gn orrialdean asiera)

Ez dut uste, beraz, drogaren gertaera bere horretan ebaki eta bere horretan arakatu behar denik, edo atsegin bilaketa gisa hausnartu. Droga ez da «bai» baten ondorioa, hutsune eta «ez» borobil baten oihartzuna baizik. Funtseira behar da. Jendea, bai Suezian eta bai Polonian, baita herriki azaldu nuen bezala Baionan ere, aspertu egiten da osoki. Zibilizazio teknikoari datxe-kon higuina dugu aurrean, gorantz ari, eta gasteria batez ere etsipenean murgiltzen.

Zer dago, beraz, gure Zibilizazioaren sustraiari (ez moldaketan, kontuz!) gizadi OSOARI inoiz senditu ez duen higuin hilgarri hau nagusi dakion? Zer deritzazu zuk, irakurle horrek?

Larresoro.

### Bodegón

### Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago Donosti'ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zintzo takite aruntz joaten. Nai dan aukera ba-dezu beti jaten bezela edaten, oberik ezin arki diteke merke ta ondo ematen.

Fermin Calbetón, 4 DONOSTIA

# astez aste

## BAIONAKO ASTEA

Aurten ere egingo da, iaz bezala, "Baionako Astea". Dirudie-nez, uztailaren lehendabiziko egu-netan izanen da.

## TOLOSAN, IKASTOLAREN

### ALDE

Tolosako "Lizardi" kultura-erakundek, Beotibar pelota-plazan jai eder (at tajutu zuen, orain dala gutxi, "Laskurain" ikastolari lagun-tzeko.

Tolosarrak bete bete egin zuten frontoia. Ernaniko "Galarreta"ko poltaririk onenak jokatu ziran eta "Biarriz" Club-ek ere asko lagun-du zuan. Zortzi poltarik ere be-ren izardia eman zuten ikastola-ren alde. Frontoieko langileek ber-din, utsean egin zuten lana eta empresa eta denda askok opariak eskeñi zituzten.

## ZORTZIKOTEEN

### TXAPELKETA

Mondragoeko "Danok"ek eratu-tako zortzikote-txapelketa, Anorga-ko "Erizka"koek irabazi dute; 25.000 pezatatako saria eta kopa eraman zuten. Bigarren Zarauzko "Itxaspe"koek (20.000 mila pezeta eta kopa). Irugarren, Errenteriko "Karnaba"koek (15.000 pezeta eta kopa); laugarren, Oliteko "Erri-berri"koek (10.000 pezeta eta kopa); boskarren Iruñeko "Errekak" (7.500 pezeta eta kopa); seigarren, aldubako "Zortzi lagunak" (5.000 pezeta eta kopa).

## ANTZERKIA IPAR-ALDEAN

Ilarren Gan eta Jan, Gamatako "Hiruak bat" izeneko antzerki tal-deak, Teleforo Monzon-en "Mend-itarrak" eman zuan. Antzerki be-rrri bat ez izan arren, garbi nabari da ba duala oraindik gaurkotasu-nik, gazte taldeak behin eta be-rriro aukeratzeko baitute beren saioetarako. Beste zenbait lekutan gaierara, Donapaleu eta Donibane Garazin, ikusi ahal izango ditugu.

## «ROXALI»


Beti bere lanari lotua bizi dan Piarres Larzabalek, "Roxali" ize-neko antzerki berri bat idatzia du. Ibarroloko gazteek ilarren 15ean eman zuten. "Matalaz" eta "Iba-ñeta"ren egileak, oraingo ontan irri pixka bat edo asko egiañarazi nahiz idatzi duala esango gendu-ke, Farra eta pentsatzeko bidea ere ematen du Larzabalek "Roxa-li"rekin.

## DANIEL LANDART

Daniel Landart, ipar-aldeko gaz-tea, antzerkiari lotua dabil azken urtean eta "Bai ala ez" an-terkiarekin iaz zer esan ugari sor-tu ondoren, or degu gaur beste zerbaite prestatzen. Baionako an-tzoki nagusian, illaren 29an, arra-tesko bederatzietan, "Noiz" izeneko antzerkia ematekoak dira. Saio on-tan ipar-aldeko gazteen arazoa az-tertzen du, alegia, lan-eskasia gat-iki Paris aldera joan behar izaten duten euskal gazteen egoera.

## BENITO LERTXUNDIREN

### DISKA



## «IRAKUR SAIL»AREN

### LIBURU BERRIAK

Irakur Sail ere aurrera ari da bere lanean. Egun auelan liburu berri bat prestatua du laster za-baltzeko asmatan. Oraingoa, libu-ru zahar bat da, gazte jendeak eskuratzeko gogo aundia duan li-buru zaharra: Oihenarte zuberota-rraren "Atseitzak eta neuritzak". Itzaurrea Eujenio Goihenetxek egi-ña du eta beharrezko zituan zen-bait argitatu Larresorok. Urren aterako duten liburua aski aurre-ratua dute. Mikel eta Amaya La-saren poema bilduma bat jasoko du. Mikel Lasa, izan ere, euskal-dun gazteen artean poetarik fam-aletuenetakoa da. Beraz, arerra ona izango duela uste dugu.

## SARAGUETA-KO MARGOLAK

### ETA NAFAR EDERTI ESKOLA

"Principe de Viana" aldizkarian Joxe Mari Satrustegik dionez, Ma-drilitik ere esan dute, ofizialki, Sa-raguetako margolak onak dirala. Nafarroan ba dirala tankera or-tako beste zenbait. Beraz, ba dala nafar ederti eskola bat.

## NAFARROAKO DIPUTAZIOA

### ETA IKASTOLAK

1970 ko Urriaren 16 an artutako Erabakiak aurrera eramateko El-kargo bat sortu da. Elkargo onen eginkizun bereziak auki izango di-ra:

1. Nafarroako euskerari lagun-tzea ikuntza errikoienaganako ema-nik izan diran zendeak betearaziaz.
  2. Euskera eta erdera berdin sartuko liratek ikastetxeak sortze-ko, Diputazioari eskatzea.
  3. Bai diru aldetik eta bai ba-be eta teknika aldetik, beste ikas-tetxe batzuentzat ere Diputazioari laguntza eskatzea.
  4. Euskera mintzo den errialde-ko Eskolaetan eta Diputazioak erabak sortutako beste ikastetxeetan, Erabakiak betetzeko kometi dena Diputazioari agertzea.
  5. Diputazioaren Erabaki auek noia betetzen diran begiratzeta.
- Aitoru beharra degu euskaldun-ek, beste gauza batzutan bezala, euskal kultura euskeraz emateko bide onan ere, Nafarroako Dipu-tazioa doala aurretik.

## OREXAKO UDA-

### -UNIBERSIDADEA

Z. ARGIAREN orrialdeetan Ore-xako Latxaga jaunak egin zuan deiari erantzun azkarrak eman dio-te gazteek Joxe Mari San Sebas-tian apaizak dionez (bera baita dalako "Latxaga") betekia izango du Orea erriak orain arte izan diran euskeraren. Inguruakoko erri-ren batzuek ere artuko omen di-tuzte ikasleak. Ala ta guztiez, ez omen da gelditzen gehiagorentzat lekuri. Beraz, geldi bedi zabaikun-dea.

## «HISTORIA DE LA MUSICA

### MEDIEVAL DE NAVARRA»

### LIBURUA

Nafarroako Diputazioak «Histo-ria de la Música medieval de Na-varra» deritzan liburu interesgar-ria argitaratu berri du. Higinio Angles il berri dena izan da li-buruaren egilea.

## MUNDUKO PELOTA-

### -TXAPELKETA, DONIBANEN

Aurtengo Zesta-punta txapelketa nagusiarena, au da munduko tx-a-pelketa, Donibane Lohitzungo "Jai-Alai"en jokatuiko da. Munduko kopa berria irabazi nahi duten pe-lotari aipatuak Donibanera etorri-ko dira datorren udan. Benetakoa uza gure erri politerako.

## BERTSOLARIAK ANORGAN

Agingu zuen bezala, Aforgarrek gure bertsolari famatuenei bene-tan arerra ona egin zieten. Sei-ruen bat lagun sartu ziran Anorga aretoan, amarna duro ordain-duta. Bertsolariak ere ondo baiño obeto portatu ziran; Xalbador, Mattin, Lasarte, Lazkao-Txiki, Az-pillaga ta Lopategi ziran bere saioak eskeintzen. Joxe Mari Ara-nalde berriz, puntu jarzaille. Al-tabezak oso ederki ibilli ziran mi-riaria bada ere olako saioetan... Lasarte bertsolariari Donostian San Jose egunez egingo zaion omenal-dian aurrerapen bat izandu zan Anorgako jaialdia. Ala zion Lasar-tek, pobrea zala adierazi behar izan zuanean:

Xoxik ez det poltikuian au da motzatsua!  
bafiñan kantari ari naiz, ba det poztasuna.  
Jaun zerukoak eman zala osasuna;  
au izango da gure aberastasuna.

## ROMAN IRIGOYEN JAUNARI

### OMENALDIA, ALTZAN

Martxoaren 7an Altzako erritar guztiok omenaldi beroena eskeñi zituen ogeita amabost urtetan sen-dagille izan duten olartzuon Ro-man Irigoyen jaunari. Izan ere "Don Roman"ek gaurko altzatar pertsona eidi guztiak eta gazte askori egin izan die ikustaldia oi-ñaze-aldian. Txarranpiña dala, ez-tarrako miña, bronkiak zikiñak edo esteak oker, amaika jirabira egin du sendagille zintzo omen Alt-zan barrera! Orain erriak esker onak eman nahi izan dizkio. Ne-la... Txistulariak, dantzariak, me-la... eta berdurak besterik izan izan ez duan gizonari, egungoko en-tremesak, arraiak, aragiak eta gal-diontzekoak eskeñiaz. Dana dala, ez omen dio ezertok gaitzik egin. Sendagilletza uzten du aurten. Jai au zala-ta, Altzatarrek etatzen denborarik galdu. Bazkal ondoko itzaldietan argi eskatu zitoten an-zan Donostiako Udaletxeako ordezkariak, orain Donostiako auzo da-nez, merezi duan bezala zaintzeko Altzako baztarrak. Eta gero, nola ez, bertso saioa, Lazkano, Lizaso eta Mitxelena.

## «LEKU EDER» SARIA

Neguriko "Leku-Eder" arte-esko-lak amar mila pezatatako saria eskeintzen du. Zer egin behar? Maiztaren 15a baino lehenago, "apartamento" deritzan litzaga-ete oietako bat nola apaindu adierazi; au da, aurre-lita edo proyeto bat bialti bizitza-etea iziki bat apain-tzeko. Sari au aipatuak eskolak eskeintzen dute bigarrena da. Eus-kaldunen batek irabaziko al du baldin baite...

## «VILLA DE PORTUGALETE»

### SARIA

Au berriz, erdal-literatura saria, 30.000 pezatatakoa. Nonbait lehen diru gutxi dipoakigui Euskal Erri-tik kanpora, ta...

Murok

